

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3308

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 17koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Estaños Matiena, S.A. enpresak Zumaiako (Gipuzkoa) udalerrian sustatzen duen Metalen azalen tratamendua jarduerari dagokion ingurumen baimen bateratua lortzeko aurkeztu duen proiektua jendaurrean jartzen duena.

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen xedea atmosferaren, uraren eta zoruaren poluzioa ekiditea da, eta hau posiblea ez denean, murriztu eta kontrolatzea. Horrela poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuko sistema bat ezartzen du, ingurumena bere osotasunean babesteko.

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak –5/2013 Legearen bidez aldatu zen lege hori– ezarritakoari jarraituz, instalazioen eraikuntzak, muntaiak, ustiak eta edo lekualdaketak, eta baita funtsezko aldaketek ere, ingurumeneko baimen bateratua behar dute, baldin eta lege horren 1. eranskinean jasota badaude. Ingurumeneko baimen bateratuaren helburua araua bete behar duten instalazioek bere xedea bete dezaten beharrezkoak diren baldintzak ezartzea da, hain zuten, baimena ematerakoan parte hartu behar duten Herri Administrazio desberdinen lankidetzaren bermatuko duen eta hiritarren administrazio beharrak arintzen dituen prozedura baten bitartez gauzatuko dena.

Estaños Matiena, S.A. enpresak 2014ko maiatzaren 23an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari ingurumen baimen bateratua eskatu zion, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera.

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak araututakoari jarraituz, Estaños Matiena, S.A. enpresak Zumaia (Gipuzkoa) udalerrian sustatzen duen metalen azalen tratamendua jarduerari dagokion ingurumen baimen bateratua lortzeko aurkeztu duen proiektua jendaurrean jarri beharra dago.

Honako xedapen hauek aztertu dira: Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; 16/2002 Legea aldatzen duen ekainaren 11eko 5/2013 Legea; Emisio Industrialen Erregelamendua onartzen duen eta Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2012ko Legea garatzen duen urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua, Hondakinen eta kutsatutako lurzoruen uztailaren 28ko 22/2011 Legea; Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretua; urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta oro har eta bereziki aplikagarri den beste legedia. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. Artikulua.– Estaños Matiena, S.A. enpresak Zumaia (Gipuzkoa) udalerrian sustatzen duen metalen azalen tratamendua jarduerari dagokion ingurumen baimen bateratua lortzeko aurkeztu duen proiektua jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko

Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe horretan bidezko iritzitako arrazoibideak aurkeztu ahal izango dira.

2. Artikulua.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, proiektua Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzan egongo da eskuragarri (Donostia kalea, 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz), bai eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Gipuzkoako Lurralde Bulegoan, Donostiako Infanta Cristina, 11 – Villa Begoña kalean.

Era berean, adierazitako dokumentazioa hiritarrek errazago eskura dezaten, aipatutako espediente Zumaia Udalari bidaliko zaio, horrek espediente erakusteko, jendaurrean jartzeko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 17a.

Ingurumeneko sailburuordea,
JOSÉ ANTONIO GALERA CARRILLO.